

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Sic Bonuak, I+G+b programetan parte-hartzea bultzatzeko laguntzak, eskatzeko epea ireki da

*Deialdiak 201.250 euroko laguntza du*

Asteazkena, 2016.eko abuztuak 10

Abuztuaren 10etik (asteazkena) abenduaren 15era bitarte epea irekita izango da enpresek, zentro teknologikoez eta ikerketa-zentroek eta unibertsitateek SIC Bonuak deitzen direnak eskatu ahal izateko; Bonu horien bitartez finantzatzen dira I+G+b proiektuak estatuetako, nazioarteko eta erkidegoetako programetan aurkeztera bideratutako aholkularitza-gastuak.

Laguntza, guztira, 201.250 eurokoa da, eta laguntzen inguruko informazioa astearte honetan, abuztuaren 9an, [argitaratu da](#) NAO. Era horretan, Nafarroako Gobernuaren asmoa da Nafarroako erakundeek, bereziki eteek, erkidegoetako, nazioarteko eta estatuetako programa ezberdinetan parte hartzea bultzatzea, horien bitartez funtsak ematen baitira ikerketa zientifikorako, garapen teknologikorako eta berrikuntzarako (I+G+b). Programa horien artean honako hauek aurkitzen dira: Horizonte 2020, Garapen Teknologiko Industrialerako Zentroa, Eureka, e.a.

Laguntzen bitartez, kanpoko aholkularitza-enpresak kontratatuzeko kostuaren %100 ordainduko da, gehienez ere 24.000 euro, deialdiaren eta erakunde eskatzailearen tamainaren eta izaeraren arabera, beste faktoreen artean.

Diru-laguntza emateko, banako ebaluazioa egingo da; beraz, espedienteak eskaerak aurkeztu diren ordenaren arabera izapidetu eta ebatziko dira, aurrekontu-kreditua dagoen bitartean.